

SAGARDOAREN GRAZIA

Bedeinkatua izan dedila
Sagardoaren grazia
Bai eta ere kupida gabe
Edaten duen guzia,
Edari honek gizon askori
Ematen dio bizia,
Hau edan gabe egotea da
Neretzat penitentzia.

Lenengo sartu tabernan eta
Ateratzen naiz azkena,
Egun guztian zurrutean ta
Ez zait betetzen barrena,
Hau da edari zoragarria
Neri gustatzen zaitena
Maria Jexux bihotzekua
Bete hamaseigarrena.

Gaitzik ez duben erari honi
Gogoz ohi diot nik ekin,
Satisfazioz ez naiz arkitzen
Pixar bat eta birekin;
Hiru edo lau izaten ditut
Arratserako nerekin,
Tristura eta penak sendatzen
Ditut sagardoarekin.

Kupelan dagon sagardoak dit
Ematen tentazioa,
Prezisamente eran beharra
Daukat persekuzioa;
Mila deabruz josirikako
Orain duben prezioa,
Zaleak asko geran medioz
Dauka estimazioa.

Edanago ta berriz nahiago
Beti nago egarriak,
Begibitarte txarrikan ez dit
Egiten tabernariak,
Hemeretzi len, hau hogeigarren,
Hamar atzo zor utziak,
Markak kupelan egin jayian
Pagatutzeko guziak.

SAGARDOARI

Urreztuba ikusten
Zaio koloria,
Balsamu bat da berriz
Bere savoria;
Txinpartak darizkala
Edari guria,
Penak hiltzeko txanpain
Bainan da hobia.

Kentzen du egarria
Alaitzen du oso,
Jartzen daki kantari
Dantzan ta garboso;
Urrezko edariya
Edaten da gozo,
Bainan ukalondorik
Ez gehiegi jaso.

Bere gaian neurria
Dionari hartzen,
Umore ona baizik
Ez dio ekartzen;
Baina gehiegi tripan
Preso badu sartzen,
Tripazaya balantzak
Eginaz du jartzen.

O! edari maitea,
O! edari ona,
Kulpikan gabe preso
Kupelan egona;
Orain libratzen zera
Gure zoriona,
Atoz pozturik deika
Daukazu gizona.

Txotxetik irten zera
Kristal fin garbira,
Saltatu dezu ilun
Betikan argira;
Atoz ederra, atoz
Gauzkatzu begira,
Eragiteko baso
Zaudenari jira.

Zu zera lorientzat
Ihintza dan modura,
Gizonaren pozgarri
Sortuba mundura,
Esaten zaitubena
Zu zeruko ura
Igotzen dezu mundu
Hontako zerura.